

...eta **kitto!**

734 zkia. 2010-X-1

ASTEKARIA

TOKIKOM



TXOTX! Egun osoko SAGARDO EGUNA bihar

**Konpartitu itzazu
nahi baduzu...**


2 betaurreko
Graduata
benditsorietan edo
dusberdinarabian

97€

2
benituta

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



KITTO

Bazkide Jaixa!!!

OSTROBIK OSTRO
ARBOLIA
JANTZI



- Puzgarrixak
- Umiendako tallarrak
- Bazkarixa
- Paillazo tallerra
- Mus txapelketia
- Futbolin txapelketia
- Musika Dantzaldixa

Urriak 23, Armerixa eskolan.
Etati famelixa eta lagunekin batera,
ondo pasatzera!!



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnos: 943 20 67 76

AZALEKO ARAGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GOGOTI/GOGOTSU.- Jatuna. "Baserritarra, esan biharrik ez, gogotixa. "Gogotsua bai jaten eta bai eraten".

GOGUAN HARTU / EUKI.- Gogoratu. Kontuan hartu. "Goguan dauka zure hasarria, harrezkero urte asko joan arren". "Goguan ondo hartizu esatera noiana".

ESKUTITZAK

HIRI-ERDI PROMOTORARI

2006an Ego-Gain kaleko etxe bat erosteko kontratua sinatu nuen. 2009ko otsailaren 15ean lehenengo obra bisitatu nuen. Berehala konturatu nintzen etxearen distribuzioa aldatuta zegoela eta, hurrengo egunean, irregulartasuna idatzita aurkeztu nion Hiri-Erdi promotorari. 2009ko uztailaren 22an eskriturak egin nituen, bertara bizi izatera joan, etxea distribuzio berriari egokitu eta, bitartean, nire eskubidea jakinarazi nion promotorari fax-aren bidez.

2010eko irailaren 22an, aurkeztutako lehenengo kexatik urtebete eta erdira jota, Hiri-Erdi promotoratik faxa bidali zidaten, egindako hanka sartzea onartuz eta etxea planoan zegoen modura moldatzeko prest zeudela esanez. 18 hilabete pasatu eta gero, etxean berriro obretan hasi eta hankaz gora ipiñi? Ez, jauna! Nik uste dut, behin hona helduta eta gauden sasoiaren egonda, bestelako kontentsazio mota bat dagokidala!

Ura juan eta gero, ezin da presia egin!

HIRI-ERDIK KALTETUTAKO BIZILAGUN BAT

ANIAIZ ETXEAN NAHI ZAITUGUII

Jakitera eman nahi dugu, aurreko irailaren 20ko ez-ohiko plenoan gertatutakoa: bertan hartutako hitzartzean Aniaiz eta beste atxilotuen bahiketa, tortura basatiak, herrian egin zituzten miaketa eta jasandako errepresio polizia salatu genituen.

Eibarko udalean dauden alderdi politiko guztien (PSOE, PP, PNV, Hamaikabat, EB, Aralar) jarrera agerian laga izan nahi genuen. Gertakizun hauen aurrean, inongo

momentuan ez dira senideekin harremanetan jarri, atxilotua eta inkomunikatua izan den Aniaizen egoeraz ez dira arduratu, ez dute mobilizazio zein egindako asanblea informatiboetan parte hartu, etxebizitzaren eta Arrate Kultur Elkartearen miaketen aurrean ez entzunarena egin dute eta, jakina, ez dute salaketarik egin. Hau guztia gutxi biltz, herriak emandako erantzuna oztopatzen saiatu dira, municipalak eta brigada kartelak eta propaganda kentzeko erabiliz.

Atxiloketa, inkomunikazio, miaketa eta tortura basatien aurrean beraien ixiltasunak ahalbideratzen duen gauza bakarra egoera hauek berriro ere errepikatzea da. Guzti honetan bakoitzak duen ardura politikoa kontutan izanik, konplize zuzenak bilakatzen dira.

Eskerrak eman beharrean gaude egun guzti hauetan euren elkartasuna adierazi diguten Eibarko herritar zein lagunei, eta nola ez, Arrate Kultur Elkartea, Gaztetxe eta Eibarko Ezker Abertzaleko kide guztiei.

Eskubide urraketa ororekin bukatu nahi badugu (bahiketak, inkomunikazioa, tortura, dispersioa...) denon arteko elkarlana ezinbesteko baldintza da, eguneroko enkarteladetan, preso politikoei elkartasuna adieraziz... Eguneroko borrokarari esker bakarrik lortuko dugulako zapalkuntza honi guztiari aurre egitea. Euskal Herriaren eta herritarren eskubideen defentsan eta eskubide horiek gure eskuetan hartu eta estatuak herri bat aurrez aurre aurki dezan.

Besarkadarik beroena euskal preso politikoei eta iheslari guztiei!!!

JON BARANGUAN ETA ANIAIZEN ETXEKOAK

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Denetarako legeak egiten diren herri honetan, prentsa askatasunarenak bere horretan dirau. Paparaziek Zapatero eta diputatuei Nadali moduan jarraituko baliete, legeak ziztu bizian aldatuko lizkigukete. Galesko Dianaren heriotza eragin zuten eta hark ez du ondoriorik izan; lotsatu ere ez dira egiten"

(Toni Nadal, tenisaren prestatzailea)

"Gauzak egin behar diren bezala egiteari garrantzi gehiegi ematen diogu. Disko bat egiterakoan, onena kantuk egiteko unea da; gainerako guztia egoa puztea da, jendeari erakustea zein politikak diren gure kantuk. Horrek zerikusi gutxi du artearekin. Musikaren unea sorkuntza da, berehala pasatzen dena"

(Txuma Murugarren, abeslaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

DIPLOMA BANAKETIA

Astelehen goizian banatu zetsazen diplomak Unibersidade Laboralian azken ikasturtia amaittu eben ikasleri. Ikasle guztiak bertara juaterik ez eben izan, gehixenak honezkeru biharrian hasitta daguazelako. Azken ikasturtia gainditu dabon 65 neska-mutilen artian, 46k mekanika arluan jardun dabe eta beste 19rak elektronikan. Kasu bixetan, lau urte emon dittue ikasten.

ZERAMIKA ETA DIBUJORAKO MATRIKULIA

Euskera eta Kultura sailletik aditzera emon dabenez, ZeramiKa eta Marrazketa Eskoletan izena emon nahi dabonak oindioK be horretarako aukeria badaka, baiña matrikulia egitteko Pegorara juan biharko dau.

ETXEBIZITZA BIRGAITZEN

Etxebizitzak birgaitzeko zerbitzua eskinduko dau aurrerantzian Debegeesak astero Deban, bertako Udalaren laguntasunarekin. Debako udaletzeko beheko pisuan hartuko dabe jendia, martitzenetan 10.30xetarik 14.30xetara. Zerbitzua ahalik eta onduen eskintzeko asmuarekin, alde zurretik txandia hartzia eskatzen dabe (943 19 28 40).


Lambretta guztiak alkarrekin

AURREKO BARIKAKUAN LAMBRETTA KLUBEKO ORDEZKARIXAK EIBARKO MUSEUAN EGON ZIRAN Miguel de los Toyos alkatiarekin, gure herrixan fabrikau izan diran motorren modelo gehixenen irudixak jasotzen dittuan posterra emoten. Aurrerantzian nahi dabonak museuan ikusi leixian posterrak gurian egin zan lehelengo motorrarekin hasi eta azkeneraiño, tartian egin ziran modelo ixa guztiak erakusten dittu. Posterra osatzia "gatxa" izan dala aitortu dabe materi-xala pillatziaren arduria izan dabon Lambretta Klubeko kidiak. Izan be, modelo batzuen kasuan, bizpahiru motor baiño ez ziran egiñ eta, horregaittik, bihar haundixa egitten dihardue horren gaiñeko pistia segitzen. Halanda be, museuan bertan Lambretta etxiak egindako motor batzuk ikusi leikez, tartian jarraitzaille asko dittuan 1957xan egindako modelua. Posterra aurten emon dabe argittara Lambretta Klubekuak, hain zuzen be urtero San Kristobal jaixen inguruan antolatzen dabon konzentraziñorako.



Udalak zergetan 10 millioi euro jasotzia espero dau

ASTELEHENIAN UDALIAN IZANDAKO PLENUAN HARTUTAKO ERABAGIXARI JARRAITUTA, hirugarren urtez jarraixan ez dittue zer-gak igoko. Hori da herriko agintarixak krisixari aurrera egitten laguntzeko hartutako neurrixa. Urtia amaitzerako, 10 millioi eurotik gora jasotzeko prebisiñua egitten dabe: 2010eko aurrekontuetan aurreikusittakua- ren arabera, herri-ondasuneneko izaeria daken zergetatik 4 millioi jasotzia espero dabe, zergetan (zaborra biltzeko zerbitzua, ura, garabi zerbitzua eta azokako postuak) beste hiru millioi eta milioi eta erdi, barriz, zirku-laziñuari lotutako zergeri esker.



Enpresak tokiz aldatzeko laguntzak

ENPRESAK HERRI BARRUTIK ETARATZEN JUATEKO UDALAK EMOTEN DITTUAN LAGUNTASUNAK zenbaketuak izango diran erabagitta geratu da, aste honetan bertan Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak jasotzen dabon moduan. Etxien artian daguazan taillarrak industria gunietara juatera animatzeko helburuarekin emoten dittuen subenziñuak lan-tegixak dittuan bihargiñen kopururaren araberekuak izaten dira: bihargin bakarra ala pare bat dakenak 30.000 euro jasotzeko aukeria dake, 3-5 bihargin dittuenen kasuan laguntasuna 42.000 eurokua izango da, 6 eta 10 bihargin bittartekuetako 60.000 euro emoten dittue eta hortik aurrera, 10etik pasatzen dan bihargin bakotzeko 6.000 euro gehixago eskintzen dittue. Laguntasunen gaiñeko informaziñua jaso nahi dabonak Pegorara juan biharko dau. Eskaeria egitteko epia azaruaren 2ra arte egongo da zabalik.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Xaltixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 FAX: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



La Salle-kuak ikasturtia hasten

AZITTAINGO LA SALLEKO IKASLIAK, OHITTURIARI JARRAITUTA, ARRATEN EKIN ZETSEN ikasturtiari oin dala egun batzuk. Oñiez igo eta, irakasliak azaldutakuari jarraituta, *“danok juan giñan Arrateko Amaren bedeinkapena jasotzera”*. Hamarretakua egitteko aukeria be euki eben, baiña eguraldixak larregi ez zetsen lagundu eta Eibarrerako bueltia beste batzuetan baiño lehenago egin bihar izan eben.

Bestalde, La Salle Irratia martxan ipiñi zala 10 urte badira eta, hori ospatzeko, ikasturtian ekitaldi berezi batzuk garatzeko asmua dakela aurreratu deskue. Irratixa 107.4 FMn edo internet bidez, www.eibarkolasalleirratia.org helbidian entzun leike.



Alfako urbanizaziñoko bizilagunak emondako berbia ez betetzia salatzen dabe. / SILBIA HERNANDEZ

Errekaren kiratsarekin hasarre

EGO ERREKIA GARBITZEKO EUSKO JAURLARITZAK “EMONDAKO BERBIA EZ BETETZIA” salatzen dabe Alfako urbanizaziñuan bizi diranetako asko, batez be ixa egunerero errekatik zelako kiratsa urtetzen daben ikusitta. Honezkero errekia guztiz garbixa egotia aurreikusit eta Eibarrera egindako bisitan Jaurlearitzako ordezkariak hala agindu ba-

zeben be, *“errealidadia oso bestelakua”* dala diñue eta, bestiak beste Ermua inguruko saneamendua hasi barik daguala gogor kritikau dabe oiñ hurrengo. Izan be, Eibarren errekia bistan geratzian botatzen daben zikiñ-usaiñak gure herrira aillegau aurretik ura garbitzeko neurririk hartu ez izanarekin zuzen-zuzenian lotuta dago.

anzorik anzo



Electrociclos-eko biala zabaldu barik

Electrociclos-eko biala oindiok ez zabaltziarekin hasarre, horren inguruko salaketia egin dau Elixabete Gómez EB-Berdeak alderdiko ziñegotzixak aste honetan Udalian. Berak diñuanez, *“julixorako bialaren lehelengo zatixa amaittuta eguan, baiña itxura batian horretarako arrazoi berezirik egon barik be, ez dabe bidia zabaldu, ez oiñezkuendako ezta automobilendako be eta, beraz, bertan bizi diranak ezin dira zuzenian bariante-ra sartu edo urten”*.

Bertan bizi diran hainbaten keja jasota, atzerapenaren arrazoiak galdetu eban ziñegotzixak eta, erantzun detsenez, *“arazua konpaiña elektrikuarekin dago”*. Ziñegotzixak pentsatzen dabenez, *“erraz eta bizkor konpontzeko moduko arazuak dira. Elektrizidadia konektatzia, besterik ez bada bihar, zeri begira dagoz?”*. Electrociclos inguru horretan duguaz etxiak protekziñokuak dirala gogora ekarri nahi izan dau Gómezek eta, horren harira, *“bertan bizi diraneri etxiak urte biko atzerapenarekin”* entregau zetsazela. Holakuen aurrian Udalarari *“hartu biharreko neurriak lehenbailehen”* hartzeko eskatzen detsa.

eibar kaleka

Iparragirre kalia

Urkizuko parkia pasauta, eskumatara igotzen dan errepidian gora doian kalia da Iparragirre. Saratsuegin etxe barrixak egittiarekin batera, azken aldixan aldaketa haundixa euki dau kalia, batez be amaitsu barri daben errepidiarekin lotutakuak.

Pegora kopurua: 6.

Erroldatutakoak: 110.



asteko


63

datua

egun itxoitten dabe, bataz beste, Mendaroko kirofanotik pasau bihar diran gaixuak eta zuzendaritzak zenbaki hori 60raïño jaitsi nahi dau. 2.002, barriz, abuztuan atenditutako urgentiak izan ziran eta 49 hil berian bertan jaxotako umiak.

Alfak taillarra zabalduko dau Txinan

ASTE HONETAN BERTAN FIRMAU DABE ALFA ENPRESAKUAK TXINAN LANTEGIXA ZABALDU AHAL IZATEKO akordixua. Ion Ander Buenetxea Alfa taldeko zuzendari nagusixak firmau eban Wujiang Economic Development Zone dalakuarekin hitzarmena, Patxi López lehendakarixa aldamenian zekala. Lehenagotik be Txinan ordezkauta eguan enpresa eibartarra, bulego komertziala han zabaldu ebanetik. Pauso bat aurrera emon eta hitzarmen barrixak produkziñorako taillarra ipintzeko aspaldiko asmuari atiak zabaldu detsaz,



Mekanizaziñuaren zati bat eruan dabe Eibartik Txinara. / EKIN BELAR

holan mekanizaziñuaren zati bat Eibartik kendu eta Txinara eruateko. Fabrika barrixak 2.000 metro karratu eukiko dittu, baiña etorkizunian haunditzen segitzeko aukeria aurreikusitako dabe. Jiangsu probintzian, Wujiang hirixan egongo da taillarra, hamendik Txinara jua-

ran enpresa gehixenak kokatu dira inguru horretan. Proiektua gauzatu ahal izateko 3 millioi euroko inbersiñua egingo da eta Diputaziñuak 150.000 euroko laguntasuna emon detse. 2011rako martxan egotia gus-taiko litxakixo enpresako zuzendaritzari.

Eibarko ahizta bi Pekin Express-en

CUATRO TELEBISTA KANALAK AURREKO ASTIAN EKIN ZETSAN PEKIN EXPRESS lehiaketaren hirugarren denboraldixari eta bertan eibartar bik dihardue parte hartzen: Sandra (35 urte) eta Belinda (28 urte) ahiztak. Ahizten artian nagusixena ezkondata dago eta mutiko baten ama da. Administratibo modura egitten dau biharra eta Eibarren bizitzen segitzen dau. Belinda, barriz, herritik kanpora, Leonen bizi da nobixuarekin eta teleoperadora da. Aurreko astekua lehelengo saiua izan zan eta, lehelengo etapia amaïttuta, lehiaketako 10 bikotien artian hirugarren sailkatu ziran eibartarrak.





Nerabeen gurasuendako ikastarua

AURREKO IKASTURTEKO ESPERIENTZIARI JARRAITTUTA, SEME-ALABA GAZTIAK DITTUEN gurasuendako apropos pentsautako ikastarua emongo dabe Portalean, urriaren 19, 21, 26 eta 28xan, 18.00etatik 20.00etara. DBH eta batxillerreko ikaslien gurasueri Facebook, Tuenti, Web 2.0 eta, orohar, internet eta sa-

re sozialen inguruko azalpenak emoteko helburuarekin antolatu dabe Baikara Gipuzkoako ikaslien federaziñoko ordezkariak emongo daben kursua Udaleko Gizartekintzakuak. Matrikulak 14 euro balixo dau Eibarren erroldatuta daguazendako eta 23 euro bestien-dako. Pegoran emon bihar da izena, urriaren 11 baiño lehen.

Setienen hitzaldixa martitzenian

EIBARKO PARROKIXAK ETA JUSTIZIA ETA BAKE GIZARTE IDAZKARITZAK antolatuta Irakasbide Sozialeko VIII. Ikastarua hasiko da datorren astian, martitzenian 19.30xetan José M^º Setiñenek Portalean emongo daben hitzaldixarekin: "Galdera etikoa bizi dugun une historikoan". Ikastaruak datozen hilliotan jarraipena izango dau, hillian behiñ eskindukot diran hitzaldixekin: azaruan atzera be Setiñenek jardungo dau, abenduan Pablo Aresok, urtarrillian Arturo Garciak eta, ikastaruarekin amaïtzeko, Juan Pagolak. Hitzaldixak areto nagusixan izango dira (Portaleko 2. pisuan) eta nahi dabenandako atiak zabalik eukiko dittuela azaldu dabe antolatzailliak.




Euripian, baiña jaxetan

BARRENA KALEKUAK AURREKO ASTEBURURAKO PREPARAU EBEN JAIXA euripian pasau bihar izan eben, baiña, halanda be, paella lehiaketaren inguruan batu ziranak oso ondo pasau eben eta, arkupien babesa billau ostian, erregular, arazo barik ospatu zittuen zaturako antolatutako ekitaldixak.


Mobilidadiaren Europako Astia ospatu zan hillaren 16tik 22ra eta, hori dala-eta, hainbat ekitaldi egin ziran, batez be hiriburuetan. Holakuetan herritarron konzientzia piztu nahi izaten da, gehixenetan erosotasunaren hatzaparretan erraz jausten garalako, kutsadura eta halakueri aurre egin biharrian.

Garraio publikua erabiltzen dozu?



CHELO ALONSO
32 urte
administrarixa

Ixa egunero erabiltzen dot garraio publikua Eibar barruan ibiltzeko. Udalbusaren ordutegixa ondo dago, baiña arratsaldetan apur bat motz gelditzen dala esango neuke. Eibartik kanpora juateko, bestela, kotxia erabiltzen dot.



SERGIO GUINEA
31 urte
injenierua

Gitxi erabiltzen dot garraio publikua. Eibar ez da haundixa eta oinez ibiltzen naiz; biharrerako, berriz, kotxia erabiltzen dot. Ez dakat konbinaziñorik lanera juateko; bestela erabilliko neuke.


PEDRO GUTIÉRREZ
59 urte
garraiolarixa

Ez dot garraio publikua erabiltzen, ez dakat horren premiñarik. Transportistia naizenez, nahikua denpora emoten dot karreteran eta gogo gitxi izaten dot gero be kotxia edo autobusen bat hartzeko. Gitxi mobitzen naiz, oporretan eta halakuetan bakarrik, eta halakuetan kotxia erabiltzen dot.



AWILDA RAMÍREZ
28 urte
zaintzaillia

Batzuetan erabiltzen dot, gehixenbat Eibar inguruko herrixetara juateko: Elgoibarrera noiala, Donostiara... Ez dakat kotxerik-eta. Dana dala, asteburuetan ordutegixak aldatzen dira eta zerbitzua ez dago hañi ondo.



**1. mailako
produktuetan
oinarritutako
Gastronomia
proposamen
berria**

**MUNDU OSOKO
sukaldaritza
tradizionaletik
BIDAIA ERAKARGARRIA**



Etxola
jatetxea

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirio kale, 1
Eibar

Inaugurazioa

Urriaren 1ean,
19.00etan

- Eguneko menua
- Karta
- Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak
- Pintxoak...

Odol-erretserbari eutsi nahian

Askotan entzun dugu Euskadi mailan egiten diren donazioak kopuru aldetik beste probintzia batzuetan baino gorago ibiltzen direla, bai organoei dagokionez, bai odol emaitzei dagokionez. Hala ere, urtea amaitzeko azken txanpan sartuta, deialdi berezia egin dute Gipuzkoako Odol Emaitzen Elkartetik, jendea eurengana gerturatu dadin, premian daudelako.

Aurtengo datuak begiratzaren hasi eta 2010eko lehenengo 8 hilabeteotan aurreko urtean baino 1.009 odol-emate gutxiago egin da Gipuzkoan eta horrek %4'7ko jaitziera dakar. Hori ikusita, iraila hasieran deialdi berezia egitea erabaki zuten elkarteko ardura-dunek, "egon ohi diren odol-erretserben mailari eusteko gauza izango ez garen" beldurra dute. Izan ere, erretserba horiei esker egiten dira ospitaletan ebakuntzak eta bestelako transfusioak eta, beraz, erretserba barik ez dago aurrera egiterik.

Herritar guztiak animatzea bilatzen badute ere, odola eman ahal izateko, baldintza batzuk bete behar izaten direla gogoratzeari komeni da. Horietakoa batzuk, gainera, arautegietan jasotakoak dira, esate baterako 1996ko otsailaren 16ko EBOK zekarren moduan, "odola ematera joatean pletora-sintomak, egoera fisiko txarra, ahultasun edo desnutrizio-egoera, anemia, ikterizia, zianosia, disnea, adimen-ezgonkortasuna edo alko-

hol, droga edo beste produktu batzuk kontsumitzeagatik intokazio-sintomak dituzten guztiak baztertuta geratuko dira".

Gutxienerako fisikoa

Hala ere, orohar, hauek izaten dira edozeinek odola eman nahi izanez gero bete beharko dituen baldintzak fisikoak: adinari begira, 18 urtetik gorakoa eta 65 urtetik beherakoa izatea; pisua, berriz, 50 kilotik gorakoa izatea eskatzen dute; tentsio diastolikoa (baxua) 50 mmHg eta 100 mmHg artean egon behar da eta sistolikoa edo altua, berriz, 100 mmHg eta 180 mmHg artean; pultsua erregularra izateak ere bere garrantzia dauka (50 eta 110 pultsazio bitartean eta eritimo erregularrari jarraitzeari begiratzen diote).

Aipatutako baldintza horiek odola eman nahi duten lagun guztiak, andrazkoek zein gizonezkoek bete beharrekoak dira, baina horrez gain, generoaren arabera aldatzen diren beste batzuk ere badaude: gizonezkoen hemoglobina-kopuruak litroko



HURRENGO ATERALDIAK EIBARREN

Urriak 7 eta 21, 18.30etan
Azaroak 4 eta 18, 18.30etan
Abenduak 2, 16 eta 30, 18.00etan
Tokia: Pagaegi, 5 behean.

135 gramotik gora egon behar du eta emakumeena, berriz, 125 gramotik gora.

Urtean hiruzpalau aldiz

Bestalde, ezin izaten da nahi beste odol eman, eta odol-emaitzen elkarteek eurek ezartzen dituzte mugak: gizonezko batek egoera normalean urtean lau alditan eman dezake odola eta emakumezko batek, berriz, hiru-tan. Horrez gain, odol emanaldi batetik bestera gutxienez hilabete bi igaro behar izaten dira.

Emaitzak bere osasun eta egoera fisikoari begiratu beharko dio eta, odola ematera joan aurretik, besteak beste, zerbait jatea komeni zaiola gogoratu, baraurik ez delako odolik eman behar. Bestela, osasun normala edukitzearekin nahikoa dela argitu digute elkarteko ordezkariak: "Norbaitek odola eman aurretik, sendagileek nola dagoen begiratzen dute, hau da, azterketa medikoa egiten diote, odola emateko egoera onean

dagoela ziurtatzeko". Horrekin batera, zentzuz jokatzeari beharrezkoa da, besteen osasuna arriskuan jartzen ibili barik. Horrela, odol-emaitzek dioten moduan, "emaitzei eskatzen zaizkien baldintzen artean, arreta berezia ipini behar diegu hepatitis edo HIESa moduko gaixotasunekin kutsatzea ekar dezaketen jokabide arrisksuekin. Horrez gain, azken urtean paludismo edo txagak izan diren gune endemikoetara bidaiari izan direnei ere odolik ez ematea eskatzen zaie".

10 minutuko kontua

Edozein modutan eta horrela, denak jarraian irakurrita baldintzen zerrenda luzea dela pentsa dezake norbaitek baina, odol-emaitzen berbetan, "behin baldintza mediko eta legezkoak betetzen direla ikusi eta ziurtatu ondoren, odola ematea oso gauza erraza da, ez du bat ere minik ematen eta denbora askorik ere ez du eskatzen, 10 minutuko kontua izaten da". Amaieran, gainera, mokadutxo ematen diete odola eman dutenei. Kampaina anitz egiten dituzte odol-emaitzek eta gehiago ere behar izango dira seguruenik, baina, sarritan topikoetan jausten bagara ere, etenbarik errepikatzen den esaldiak egia biribila dio: "Keinu txikia eginda, bizitza ugari salbatzeko aukera daukagu". Badago ezer solidarioagorik?



Eibartarra izateaz "harro" dagoen Jose Ramon Trebiñok zortzi urte daramatza Caritaseko Gipuzkoako apezpiku-ordezkarari moduan beharrean eta itxaropentsu erantzuten dio gaur egun bizi dugun krisi egoerari, "beharrak gehiago izan arren, laguntzak ere neurri batean gora egin" dutelako.

- Ze aldaketa nabari dituzu Caritasen daramatzazun urteotan?

Erakundea handitzen joan da eta proiektu berriak ipini ditu martxan, beharrei erantzuteko asmoarekin. Faktore bi azpimarratuko nituzke: emakumeen arloan dagoen pobrezia eta etorkinen esparruan dagoena, azken hau hiru aldiz handiagoa bihurtu baita. Caritasek, jendea-ri harrera egiteaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen dizkio: juridikoa, esaterako. Eliza bezala, pobrezia berriak sortzen diren neurrian, horiei erantzuteko premia daukagu.

- Azken urte biotako krisiaren eragina nabaritutako zen zuen lanean, ezta?

Batez ere, etorkinengan izan du eragin handiena. Baina baita hemengo jendearen artean. Arlo horretan, gaixotasun mentala-rena aipatuko nuke; sasoi baten gure familiak ere sendoa-koak ziren eta horrelako gaixo-ak etxekoen artean zaintzen zuten... Gaur egun koltxo eragin hori galdu egin da eta erantzun behar izan diogu. Sozio-sanitarioki balibiderik sortzen ez direnean, horrelako hutsuneak estali beharra daukagu.

- Caritas boluntarioz osatuta dago. Jendeak erantzuten du?

Mila bat lagun gaude Gipuzkoan: 600 bat parrokiatik lana egiten eta beste 400 bat gure zentroan. Ahaztu barik, logikoa denez, teknikoak ere baditugula elkarte barruan. Parrokietatik batez ere etxebizitzarako laguntzak zuzentzen dira. Garrantzi handia duen gerorako laguntzarako (hau da, une horretatik aurrera bizitzari aurre egiteko prestatze prozesuan), bestalde, beste 70 langile ditugu.


- Bazkideak ere 3.000tik gora ditu Caritasek, ezta?

Bai, laguntza handia eskain-

tzen dutenak. Gipuzkoan, azken batean, 40.000 langabetu dago gaur egun eta horrek eragin zuzena du gure gizartean. Guk hartutako jendea-ri dagokionez, 2007an 15.000 lagun izan baziren gure laguntza izan zutenak, 2008an 20.000 eta ia 25.000, euretatik 18.000 etorkinak. Laguntzetatik, %70 etxebizitzaren premian daudenei ematen zaie.

- Noizbehinkako kanpainak ere badituzue. Ondo funtzionatzen dute?

Egun bateko soldata Caritas-eri ematearena, adibidez, 300



JOSE RAMON TREBIÑO,

Caritaseko Gipuzkoako apezpiku ordezkaria:

“Jende gehiagok eskatzen badu ere, donatiboak ugaritu egin dira”

familiak jarraitu zuten probintzian eta poztekoak dira horrelako jarrerak. Horregatik diot jende gehiago etortzen baldin bazaigu ere eskatzera, aldi berean donatiboetan ere gero eta gehiago jasotzen dugula. Iaz, esaterako, milioi erdi euro gehiago jaso genuen.

- Urtarrilean 500.000 euroko fondoa sortu zenuten hipotekei-eta aurre egin ezin ziotenei laguntzeko. Zelan joan da?

Susmoa bagenuen egoera zailean izango zirela bikote asko eta asko, baina ez da horrenbesterako izan. Gure zerbitzuetara datozenak ez dira etxebizitzaren jabe, orokorrean behintzat, alokairuan bizi baitira. Eta bikote gazteak euren gurasuen eta, baita aiton-amonen, laguntza dute egoerari aurre egiteko.

- Eibarko egoera zelan ikusten duzu? Pobreak guri ere erasotzen digu?

Hor oso harrera sendoa eskaintzen dizue Arratek eta bera-ri egin beharko zenioke elkarrizketa hau. Soziologikoki ez da eskualde txarra, batez ere Pasaiarekin edo Donostiako auzo batzuekin, Altzarekin-eta, konparatuz. Horretarako adierazgarri aproposena den oinarritzko errentari erreparatzen badiogu, erdi aldean gaudela ikusiko dugu.

- Aurreko domekan diru-batzea egin zenuten parrokiak guztietan. Zelan joan zen?

Caritasen egiten dudana- rekin batera, Martuteneko apaiza ere banaiz eta han behintzat oso emaitza ona izan genuen. Dena dela, oraindik ez ditugu datu zehatzik. Ahalegina eginda

dago eta jendearen erantzuna- rekin itxaropentsu jarraitzen dut.

- Diru-laguntzen banaketa dela-eta, Caritas-eri egiten zaizkion kritikak onartzen dituzu?

Egia da inor ez dela perfek- tua, baina dirulaguntzak bana- tzean erizpide argiak erabil- tzen ditugu eta zuzen jokatzeko, eskaera baino funtsezkoagoa delako pertsona guretzat. As- kotan pertzepzio kontua izaten da eta sarri entzuten dugu kan- potarrak bertokoak baino ho- beto tratatzen ditugula. Horre- lako gauzak, egia ez izateaz aparte, objektibizatu egin be- har dira eta benetan zer dago- enaz jabetu. Dena dela, gizar- teak ondo hartzen gaituela us- te dut eta horren adibidea izan daite emergentzietan-eta, kan- pora bidalitako laguntza asko hemendik bideratzen dituztela.

TEEN-
AUEA



Malen Ulaia ikasketak eta lana tartekatzen ditu.

Ikus-Entzunezkoak amaituta, karrera amaierako proiektua dihardu egiten: hori nahikoa ez eta Enpresa Humanitateen 5. mailan dago. Aldi berean, BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) zentroan egiten du lan, komunikazio arloan. Enrike Zuazuak gidatzen duen zentroak nazioarteko izen handiko sei zientzialari hartuko ditu gaur.

**MALEN ULAZIA, project assistant:
“Letren munduko beharra ere badute matematikariek”**

- Karrera bi aldi berean, ikasketak eta lana tartekatuz. Zelan moldatzen zara?

Ikasketak lehenesten ditut, baina bata bestearekin lotzeko aukera izan dut orain arte. Hori bai, auto barik ezin izango nuke Zamudioko parke teknologikoan egiten dudako beharra Eskoriatzako ikasketekin tartekatu. As-tean hiru egunetan ditut klaseak arratsaldean eta beste bietan egun osoa ematen dut Zamudion. Hilabete gogorak badira.

- Zelan hasi zinen Zamudion?

Uztailen beka bat lortu nuen eta, Enrike Zuazuak gidatzen duen proiektuaren barruan, espezializazio eta staff management sailean lan egiteko aukera izan dut. Europa mailako proiektu baten kudeaketan dihardugu.

- Zer moduz matematikarien artean?

Zientzien eta letren arteko gorrotoa ikusten dutenak ez daude zuzen: batzuek besteen beharra daukagu. Mundu osoko jendearekin dihardugu harremanetan, ingelesez gehienbat, jende gaztea inguruan... Elhuyar eta Aran-

zadirekin ere elkarlanean. Eta egunero ikasten, asko gainera.

- Aurretik praktikak egin zientuen Kiroljokoa enpresan, ezta? Zer moduz han?

Lan munduarekin izan nuen lehen harremana izan zen, derri-gorrezko praktikak. Hiru hilabete eman nituen; urte bi dira dagoeneko. Han ere komunikazio sailean eta aberasgarri oso: probetxua atera nion.

- Ikus-entzunezkoak eta Enpresa Humanitateak. Ez zenekien zein aukeratu eta biei heldu zienen?

18 urterekin gauzak ez dituzu lar argi izaten. Komunikazioa gustoko dut eta eremu zabala eskaintzen du, aukeratzeko lau urte eskaintzeaz gain. Eta enpresa munduak ere betidanik deitu nau.

- Arlo bakoitzean ere izango duzu gustoren sentitzen zaren esparrurik? Ala ez?

Ikus-entzunezkoetan irratia aukeratu nuke. Kirol kazetaria izatea gustatuko litzaidake. Eta, enpresan, giza baliabideak: lan osasuna, lan-arrikuak eta abar.





**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak etxera**


Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Lan bila bazabiltza, hasi biharrian!

Lanpostu bat eskuratzea ez da inoiz erraza izan, are gutxiago denon ahotan "krisia" beste berbarik ez darabilgun sasoi honetan. Gainera, gazteen kasuan esperientzia faltak ez du enplegu-bilaketa horretan laguntzen. Lanpostua lortzeko bidean gauzak errezteko helburuari jarraituta, Juan San Martin Liburutegiak aurreko urteotako esperientziari jarraituko dio ikasturte honetan ere eta "Lan bila bazabiltza, hasi biharrian" lemapean hainbat ekimen ipiniko ditu martxan, SPEE (Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoa, lehengo INEM) lagun duela.



Ekimenaren bultzatzaileak aurkezpen egunean. / SILBIA HERNANDEZ



Mari Asun Amenabar Eibarko SPEE-ko bulego-ko arduradunak aurkezpenean azaldukoari jarraituta, "orain dela urte batzuk gure bulegoetara jotzen zuen jendeak bai lan eskaintzen berri ematera baita lanpostu bila jardun behar izaten zutenean ere, azken batean bitartekaritza zerbitzua eskaintzen genuen. Baina bada denbora bat horiek guztiak batzeko webgunea (redtrabaja.es) sortu zuela SPEE eta, horri esker, lan bila diharduenak zuzenean jo dezake lan eskaintzak kontsultatzen, jendeak curriculumak bertan sar ditzake, norberaren profilarik egokitutako eskaintzak sartzen diren unean abisua jasotzeko moduak ere badaude... eskaintza egiten dutenen eta eskatzaileen arteko harremana zuzena da".

Beste hainbat gestio internet bidez egin daitezke gaur egun, langabetuentzat antolatzen diren ikastaroen inguruko informazioa ere gune horretan pilatu dute, baina arduradunek dioten moduan, "webguneak eskaintzen dituen baliabideak benetan

ondo erabili eta aprobetxatzeko jendea hori erabiltzen ohitu behar da eta horregatik jo da udal-letxeetara, dibulgazio lan horretan laguntza eskatzera".

Juan San Martin liburutegiak ere bai

Horren harira, interneten gutxieneko trebakuntza bat eskaintzeko eta webgunea nola erabili erakusteko iratxe Vázquez hartu dute. Berak emango ditu kanpaina honen barruan liburutegiak antolatu dituen hiru ikastaro edo tailerrak (koadroan). Izen-ematea astelehenean zabaldu zen eta interesa dutenek liburutegian eman beharko dute izena, goizez bertara deituta (943 70 84 37). Ikastaroak doan dira, langabetuentzat bereziki antolatutakoak eta izena ematen dutenen ezagutza mailaren arabera antolatuko dituzte taldeak: "Lana

bilatzeko baliabideen inguruko ikastaroetan jardun ahal izateko gutxieneko maila bat beharko da, horregatik antolatu da hirugarrena, internetekin ohituta ez daudenekin oinarrizko trebakuntza jaso dezaten".

Enplegurako Baliabideen Gida

Interneteko oinarrizko ikastaroak 20 orduko iraupena dauka eta aste bitan, egunean ordu biko saioetan emango da. Lehenengo ikastaroa urriaren 18an hasiko da, baina azaroan eta abenduan ere emango dituzte ikastaroak, izena ematen dutenek aukeratu dezaketen hainbat ordutegitan. Euskeraz edo gazteleraz egin daitezke ikastaroak. Liburutegiko ordenagailuak ez ezik, Errota Gaztelekukoak eta Untzaga jubilatutakoak ere erabiliko dituzte,

"eskaintza jende gehiagori zabaldu ahal izateko".

Eva Alberdi liburutegiko arduradunak, bestalde, enplegurako baliabideen gida interneteko euren gunean eskuragarri dagoela gogoratzeko aprobetxatu zuen aurkezpena: "Erabiltzeko oso erosoa den 'pestaña' sistemari jarraituta, erabiltzaileak oso erraz aurkituko ditu lan poltsa espezializatuak, oposaketak, telelana, frankizia eta bestelako lan atariak, bakoitza bere atalean. Horrez gain, gaiarekin lotutako informazio erabilgarria ere badago liburutegiaren webgunean, lanari eskaintako atalean klikatuta (<http://www.netvibes.com/empleo>)".

Interesgunea liburutegian

Urte osoan liburutegian enpleguarekin lotutako kontsultak asko direla ikusita, internet bidez eskaintzen duten zerbitzutik aparte liburutegian bertan beste baliabide batzuk eskuragarri ipintzen dituzte eta, besteak beste, urrian hasita liburutegiak gaiaren inguruko interesgunea martxan izango duela azaldu zuen bertako arduradunak: "2005ean argitara eman zen 'Enplegurako baliabideen gida'-ren bigarren edizioa eskuragarri dago eta gida horretan liburutegian bertan eskura daukagun enpleguari buruzko informazioa jaso dugu, atalka sailkatuta". Beraz, gida paperean eskuratzeko liburutegira joan daiteke edo, bestela e-mailez ere eska daiteke (biblioteca@eibar.net).

Langabetuentzat antolatutako ikastaroak

"LANA BILATZEKO ETA AUTOENPLEGURAKO BALIABIDEAK INTERNET BIDEZ"

Interneten enpleguari eta autoenpleguari buruz dauden baliabideak zeintzuk diren adieraziko dira: informazio iturriak, enpleguari buruzko atariak, prentsa espezializatuak, enplegu publikoa (aldizkari ofizialak, temarioak), lan poltsak, beka, lana Europan, eskaintzen diren kudeaketarako bitartekariak eta autoenpleguarekiko sentsibilizazioa.

Noiz: Urriak 5/6/7 eta azaroak 23/24/25. **Ordutegiak** (aukeratzeko): 08.15-10.15, 11.00-13.00 eta 14.00-16.00.

"LANA TOPATZEKO TRESNAK ETA TEKNIKAK ERABILTZEN IKASTEAK"

Lana bilatzeko erremintak garatzen lagunduko da: curriculum vitae-a eta aurkezpen karta nola egin, elkarrizketa nola landu (banaka eta taldeka).

Noiz: Azaroak 2/3/4 eta abenduak 1/2/3. **Ordutegiak** (aukeratzeko): 08.15-10.15, 11.00-13.00 eta 14.00-16.00.

"OINARRIZKO INFORMATIKA"

Windows, Word, Internet (20 ordu)

Noiz: Urriak 18tik 29ra eta azaroak 8tik 19ra.

Asier Serranoren**kolaborazioa****Gizon duinaren kontzientzia**

Gizonak musu banarekin agurtu ditu alaba eta emaztea etxeko atarian. Lehenengo musuak "izan zaitez esanekoa, printzesa" esan gura du, bigarrenak "zin dagizut zurekin egin dudala gaur lo eta amets". Kafetegian kafe hotzegia atera dion zerbitzariari eskupekoea utzi dio. Espaloia zebrabidetik gurutzatu eta bi haur aurkitu ditu tortura salatzen duen afixa baten aurrean lotsa-algara bizian. Bularrak ikusten zaizkio afixako emakumeari. "Lotsagarria" dio bere baitan gizonak. Kioskoan prostituten kontaktuak iragartzen dituen egunkari demokrata bat erosi, eta kontzientzia garbituko dioten aldagarriak daramazkin kirol-poltsan sartzen du. Izerdi asko isurtzeko eguna izango du beharrean. Bart leku baimenduan aparkatutako kotxean abiatzen da lanera.


Gaur eta hemen, torturatzen ez dela onartzea edo torturatzen dela ez onartzea (bi kontzeptu ezberdin, noski), existitzen ez omen den herri baten duintasuna torturatzeko beste era bat izan daiteke.

musika**Bide Ertzean**
Don inorrez

Leidor Sessions lanarekin euren hamarkada ospatu ondoren berriro sartu ziren Andoaingo Garate estudioan Don Inorrez izeneko 13 kantuak grabatzera. Honakoan ere boskote moduan ondu dituzte abesti berriak. Betiko taldea kantu soinu akustikoak erakutsiz. Kantu guztiak taldeak konposatutakoak dira eta hari orkestra baten laguntza ere izan dute hainbat kantutan.

**Jon & Sugramas**
Jon & Sugramas


Arima Beltzeko abeslari eta Uek taldeko baterajole izandako Jon Gurrutxagaren proiektu berria dugu hau. Elgoibarko musikaria orain dela urte bi inguru hasi zen proiektu honetako kantuei forma ematen, eta kantu sorta bat bildu zuenean taldea osatu zuen, aspaldiko lagunekin. Rocka izango da nagusi, bluesaren eragina ere nabari da, baina batez ere 70eko hamarkadako rock taldeen eragin zuzena dauka. Gurrutxagak aspaldiko lagunekin osatu du taldea.

**Joan Mari Irigoien**
Nor bere bidean


Damaso eta Gabino Orbeta-
rren leinuko azken ordezkari-
ek, txikitatik norgehiagoka
isil eta itsua bizi izan dute,
izateko, sentitzeko eta pen-
tsatzeko bi era kontrajarri he-
zur-mamitzen dituztelako. Ur-
teetako urruntze baten ondo-
ren, gutun sail luzea idatziko
dio Damasok anaiari, Burgos-
ko Epaiaketaren garaituan,
esan beharreko guztiak esan
aurretik hil bazen ere.

Karlos Linazasoro
Gizakiaren minak

Karlos Linazasororen ipuinak
gizakiaren mindura dute kon-
tagai. Ez dira horregatik umore
ttanta baten faltan geldit-
zen, gehienetan ironiak aza-
leratu ohi duen irribarre ezti-
mingotsetik gertuago dauden
arren. Ipuin onak halakoak
izan ohi dira, beti gorde izan
ohi dute istorio triste bat bere
baitan. Eta honako hauetan
ere halatsu gertatzen da.

**literatura**

Irrintziarekin hasiko dugu aurtengo Sagardo Eguna, 12.00etan udaletxe parean. Jarraian, aurtengo omenaduek, Usartza Txistulari bandako ordezkariak, egingo dute lehenengo txotx-a. Horren ostean hasiko gara sagar batzearekin, baleen. Jai giroa izango da nagusi ordurako eta egun osoan horrela izatea espero dugu. Zuen zain izango gara...



Txotx!

**Urriak 2
zapafua**




su garbikarriaguz, la guantozin koratze:

| | | | | |
|--|---|---|---|--|
| <p>ZARAUTZ</p>  | <p>MARKINA-XEMEIN</p>  | <p>ASTIGARRAGA</p>  | | |
| <p>TOLOSA</p>  | <p>ARAMAIO</p>  | <p>BIRIATOU</p>  | <p>GIZABURUAGA</p>  | <p>ALDATZ</p>  |
| <p>XIXON</p>  | <p>ITZIAR</p>  | <p>ASTIGARRAGA</p>  | <p>HERNANI</p>  | <p>USURBIL</p>  |



iazko bidetik



laz Eibar Foball Taldekoek egin zuten txotxa. Aurten Usartza Txistulari Bandakoek egingo dute.


1993an ekin zion ...eta kitto! Euskara Elkarreak Sagardo Eguna antolatzeari, baina **iaz aldaketa nabarmena** izan zuen. Orereta, Usurbil, Gros, Donostia eta Aramaion egiten diren Sagardo Egun desberdinak ezagutu eta gero, eta euren laguntzarekin, **goizez eta arratsaldean egiten den jaialdia** sortu genuen. Gainera, urtetik urtera, sagardoaren munduan dauden **berezitasunak erakusteko** asmoarekin berrindartu dugu.

zapia eta alkondara zuria

Bost euroren truke, sagardoa, edalontzia eta pintxoaz gain, Sagardo Eguneke zapia ere jasoko duzue. Hori dela eta, iaz ikusiko zenuten moduan, lanean ibili ziren antolatzaileek alkondara edo kamiseta zuria jantzi zuten. **Elkarreak eibartarrak animatu nahi ditu, bihar alkondara zuria Sagardo Eguneke zapiarekin janztera.**

elkarte gastronomikoen elkarlanean

Herriko hainbat elkarte gastronomikok lagundu ziguten iaz. Egindako lana kontuan izanda, aurten ere **Botellin, Peña Txinbera eta Sasipe** elkarten laguntasuna izango dugu. Pintxoak Untzagan bertan egingo dituzte Botellin eta Sasipeko lagunek; gauean, berriz, antolaketan eta beharrez jardundako lagunendako afaria eskainiko digute Peña Txinberan. **Eskerrik asko** guztiei emandako erraztasunengatik.




sagar batzea

Sagardoa egiteko ezinbesteko erreminta dira Matxaka eta Prentsa, hau da, **Tolarea**. laz lehenengoz jarri genuen Untzagan tresna garrantzitsu hori. **Sagardoa egiteko** behar diren **pausuetako batzuk** erakustea genuen helburu. Aurten, sagar-batzea irudikatzea pentsatu dugu. Zelaia jarriko dugu herri erdian, sagarrez josita eta **sei haurrek sagar batzea** egingo dute, eskuz. Beste herri batzuetan, Astigarraga inguruan, kizkia izeneko kakodun makila dute, baina inguruko baserritarrek azaldu digutenez, Eibarren ez da horrelakorik erabili eta eskuz jasotzen ziren sagarrak.



OKINDEGIA

URKO



ERMUAN ETA EIBARREN

MENDEAK ETA MENDEAK dira sagarra gure kulturaren txertatuta dagoela. Inguratzen gaituen paisajea marraztu digu eta, tresna eta behar zehatz batzuk garatzeaz gain, gastronomia berezia ekarri digu eta gure herriaren bizitza moldeatu ere bai.

Beste fruitu batzuekin batera, intxaurra edo gaztaina horren lekuko, udazken hasieran batu eta ganbararako bidea hartu ohi du. Han bilduta egon ondoren, fruta moduan, erreta, konpota gisa, mermelada eginda... hainbat irteera izango du produktuak, sagardoa egitea euretako bat izanik.

Sagardoa izan da gure baserrietan gehien kontsumitu izan den edarietako bat. Edozein ospakizunetarako, afari-meriendak egiteko... auzolanean egindako beharrak amaituta, barrikote ospetsuaren protagonista izan da. Pittarra edo sagardo urtua ere betidanik egin izan ohi da baserrietan, baina horren salmenta debekatua zegoen.

Orain dela gutxira arte, Euskal Herriko zazpi probintzietan egin da sagardo asko; gaur egun, baina, Gipuzkoak hartu du sagardo produkzioaren ia protagonismo osoa. Bizkaiak, Arabak, Nafarroak eta Iparraldeak, neurri txikiagoan bada ere, badihardute sagardoa egiten; eta ez dira gutxi euren urteroko produkzioari eusten dioten baserritarrak, kalera atera beharrean euren kontsumo propiorako bada ere.



Euskal Herrian sagarraren muztioaren fermentazio edo hartzidura naturaletik ateratako edaria da sagardoa, filtrazio barik egindakoa. Eta sagardo bakoitzaren ezaugarriak sagar mikatz, garratz eta gozosen arteko nahasketa egokitik etorriko da.

Baseri batzuk euren tolare propioa izango dute eta beste batzuk hara eramango dituzte sagarrak muztioa egin eta euren barriketan fermentatu edo irakiteko. Sagardotegiak hiru solairu izaten zituzten: goikoan, ganbaran, sagarrak biltzen ziren eta matxakarekin birindu; erdikoan tolarea edo pren-

tsa zegoen; eta behekoan kupelak zeuden. Horietako baserri batzuk elkartzeko eta dibertsioan jarduteko gune bihurtu ziren; bertan gizonezkoak baten ziran berba egin, bolotan eta kartetan jardun, gaztainak sardina zaharrekin jan eta sagardoa pitxer edo txarroetan edateko. Hori bai, bertsoak botatzea ahaztu gabe!

Salmenta sistema ohikoena txotxa zen. Kupelak txorrota zuten eta mostradore atzean zegoenak zerbitzatutako txarro bakoitzeko kobratzen zuen. Txarro horiek hainbat neurritakoak izaten ohi ziren: pitxerra (azunbre bat); pitxer-

dia (litro bat); pititerdi edo txopina (litro erdi); txikia (litro laurdena); eta txikierdi (litro zortzirena).

Gaur egun, sagardotegiak jendea elkartzeko eta dibertsioan jarduteko guneak izaten jarraitzen dute, ospe handia hartu duten euren sagardotegiko menua eta txotxarekin. Eta sagardoaren kultura berreskuratzen doa Euskal Herri osoan. Gure tradizioei eutsiz, gure identitate propioari ere eusten diogulako; horregatik bakarrik bada ere, sagardoa gure patrimonio ekonomiko eta kulturalaren parte kontsideratu behar dugu.



Arrilagaren Txiki berriro ere txapelkun artzain-txakurretan

JOSE ANTONIO ARRILLAGAREN TXAKURREK ZENBAT TITULU irabazi dituzten jakitea oso zaila da: hainbeste lortu ditu azken hamarkada bietan, gaitza egiten dela gerturapen bat egitea. Azken urteotan gehiago bultzatu dira euskal arrazako txakurren lehiaketak eta eibartarra aldeni egin da (egin dute) pixkat txapelketa garrantzitsuenetatik, berak collie arrazako txakurrekin jarraitzen baitu, *“beste maila batekoak di-*

relako eta emaitza hobea ematen dutelako”. Denetarikoa arrazak hartzen zituen San Miguelen jokatuak Euskadiko txapelketan, zortzi lehiakideren artean, bost txakur jarraitu zuten aurrera banderen eta ate batetik sartzearen proba biak egin eta gero. Jarraian, Arrilagaren “Txiki” eta Miguel Angel Elordiren “Argi” izan ziren bakarrik artean sartzearen azken proba gainditzen eta, bietatik, eibartarrarenak atzera zituen puntu gehien.



Deporreko mendizaleen irteera Peña Telerara

HASIERAKO ASMOA ZAPATUAN MIDI D’OSSAURA IGOZTEA eta domekan Peña Telerara bazen ere, Frantzia aldean iragarrita zegoen eguraldi txarraren eraginez, azkenean 2.762 metroko Peña Telera egin zuten zapatuan eta bigarren egunean, hau da, domekan, Midi D’Ossaurako bidea hartu ondoren, bidea izoztuta zegoela ikusita, azkenean Peyreget-era (2.483 metro) igo zuten Klub Deportiboko mendizaleen taldeak. Aurrez iragari-


ta zegoen eguraldia ikusita, irteera egin dutenen hitzetan, *“pentsatzen genuena baino hobeto irten zitzaigun”*.

Urrirako bi irteera nagusi dituzte mendi egutegian: 9tik 12ra arteko zubian Ponga parke naturalera eta 23an Ataun eta Larraitzen artekoa, tartean Sarastari gaina (996 metro) zapalduz. Interesatuak Deporetetik pasatu daitezke astelehen, eguazten eta barixakuetan ohiko ordutegian, hau da, 19.30etatik 20.30etara.



Podiuma osatu zuten txakur eta jabeak, irabazitako sariekkin. / AITOR ZABALA

Usobiagak lidergoa galdu du Munduko Kopan



BEHARBADA TXARTO OHITUTA GAITUELAKO, EZ DA IZAN BERE ASTERIK ONENA azken hau Patxi Usobiaga eskalatzailearentzat. Europako txapelketan 6.a izan eta gero, Belgikako Puurs hirian jokatuak Munduko Kopako proban 5. postuan sailkatu da. Postu horrekin, lidergoa galdu du eta orain Ramonek kataluniarrengandik 40 puntura dago sailkapenean, bigarren postuan.

40-15 klubaren tenis ikastaroak

ELGOIBARKO MINTXETA TENIS PISTAN EMATEN DEN IKASTAROAK urrian hasi eta ekainera arte iraungo du, hainbat talde hartuz bere gain, adina eta joko-mailaren arabera: 5etik 7ra, 7tik 12ra eta 12 urtetik gora. Klaseak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17.45etatik 21.45etara. Gaur da ize-na emateko azken eguna eta interesatuak telefono zenbaki hauek deitu dezakete: 637-990159, 696-577872 eta 670-665797.



LUIS ARRIETA ETXEBERRIA

(2010eko abuztuaren 23an hil zen, 77 urterekin)



Izan zirelako gara eta garelako izango dira. Inoiz ez da erabat ahazten maite izan dena... maite duen hura bizi den bitartean. ZURE FAMILIA

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.



Xake Eskola hasiko da 7an

EGUENEAN HASIKO DIRA KLASEAK XAKE ESKOLAN. lazkoari jarraituz, 17.00etatik 18.30etara emango dira klaseak eguenero. Partidak jokatu eta aztertzeaz gain, ikasturtean eskolarteko xake txapelketetan eta beste torneo batzuetan jokatzeko aukera izango dute. Informazio gehiagorako, gaur bertan Deportiboko bulegoan, 18.30etatik aurrera, edo xakea@deporeibar.org helbidean. Aukera polita kirol hori gustoko duzuenontzat!



Jon Zubizarreta hasi da pilota klaseak ematen

JON ZUBIZARRETA KLUB DEPORTIBOKO AURRELARIAREKIN HAMABOST BAT MUTIL HASI DIRA denboraldi berria prestatzen eta lehenengo entrenamenduak egiten. Pilota Eskolak bigarren deialdia egiten die kirol horretan hasia nahi dutenei: "Batez ere, 7-8 urtekoei, adin hori baita egokiena kirol horretan hasteko. Baita azken pilota ikasturtearen amaieran, ekainean, antolatu zen torneoan eta meriendan parte hartu zuten 18 ikasleei". Zubizarreta monitoreak dioenez, Gabonetako eta Sanjuanetako torneoak jokatzeko aukera izango dute. Doaneko eskolak

Cuevasen San Miguel igoerako marka

ERRAZTASUN OSOZ NAGUSITZEAZ GAIN, BESTE MAILA BAT ERAKUTSI ZUEN Eibarko atletak domekan Elgoibarren jokatu zen San Miguel igoeran. Goitik behera gailendu zen Asier Cuevas errepide igoera horretan eta hasieratik egin zuen ihes 47 parte-hartzaileen artean. Helmugan minutu eta hiru segundotan hobetu zuen orain arte Josu Arre-

gi azpeitiarrak zuen marka eta 18 minutu eta 35 segundotan ezarri zuen marka berria. Iñigo Lazkano mendarorak eta Igon Manzisidor debatarak osatu zuten podiuma. Emakumeetan, Nerea Amilibia izan zen onena, honek ere berak aurretik zuen probaren errekorra hobetuz; ondoan izan zituen Ainhoa eta Nerea Lendinez ahizpak.



Zubizarreta, atzean Bengoetxea taldekidea duela. / MAIALEN BELAUSTEGI

ohiko ordutegia izango du: martitzenetan eta eguenetan, 17.00etatik 19.00etara.

JoserAuto eta Durango foball-zaletuen lidergoan

TALDE BI HORIEK IZAN DIRA ORAIN ARTE JOKATUTAKO JARDUNALDI BIETAN irabaztea lortu duten bakarrak eta, ondorioz, sei puntuarekin sailkapeneko gorenean daudenak. Batek zein besteak serio jokatu irabazi dituzte euren neurketak, jardunaldiak erakutsi duen parekotasunaren adierazgarri. Tecnografik izan da gol askoz gailendu den bakarra (6-1 Alkidebari), beste neurketa guztietan inork ez baitu-eta gol bi baino gehiago sartu: horren adibide, Durangoren (2-0 Bar Lanús.EzDok-eri) eta JoserAutoren (2-1 Living Caféri) garaipenak.

Hurrengo jardunaldian honako partiduak jokatuko dira: bihar, Esmorga.Carpe Diem - Bar Aretto, Tecnografik - C.Dental.Ekoden.Irazabal, Azke-

na.Kalton - Somos Sporting, JoserAuto Sport - Bar Caserío.XOK; etzi, bestalde, Bar Lanús.EzDok - Tankemans, Living Café - Durango eta Alkideba - Bar Txoko.



Duatloi kros txapelketak jokoan

BIHAR ARRIARANGO II. KROS TXAPELKETA JOKATUKO DA Beasaingo auzo horretan eta, bide batez, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelak izango dira jokoan. Euskal Herriko duatloi denboraldiko azken zita horretan onenak izango dira, batik bat MTBn espezialistak direnak. 6 km. oinez, 20 mountain bikean eta beste 3 oinez mendian izango ditu probak.

KARABANA / AUTOKARABANA
aparkaleku plazak salgai
Pabilioia Elgoibarko erdi aldean. Plaza mugatuak.
Sarbide onarekin. Finantziazio aukera

605 713 012 / 659 575 497

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Eibar liderrak Oviedo hartuko du domekan

SAILKAPENEAN ATZEAN EGONDA ERE, OVIEDO TALDE INDARTSUA DA eta foball-zale asko ekarriko duela espero dute Eibar Foball Taldeko agintariek. Partidua domekan jokatu da, 17.00etan, eta mendebaldeko goleko tribuna gor-

deko zaie Asturiasetik etorriko direnei, horko abonatuak beste toki batera mugituz. Manixen Eibarrek bost partidu irabazi ditu seitik eta galdu duen bakarra etxean izan zen Mirandésen aurka: arlo positiboan, taldeak erraz ikusten duela atea.

Durangoko Klasikoa Escudería Eibar-entzat


DURANGON EPIZENTROA DUEN 600 KILOMETROKO PROBA Roland Holke eta Fernando Beorlegi Eibarko eskuderiako ordezkari entzat izan zen berriro ere. Euren Seat 127-arekin nagusitu ziren proban, Anton eta Iban Beroiz 7.ak izan ziren eta Enrike Bernedo eta Jorge Beorlegi 8.ak. Asteburuan Erresistentziako Espainiako txapelketako proban debutatuko du Aitor Barruetak.



Cutura etxera bueltan Ademarrekin

EIBARKO ESKUBALOI TALDEKO AZKEN URTEOTAKO KAPITAINA Ipuruara bueltatuko da gaur, 21.00etatik aurrera Leongo Reale Ademarrekin bere aurreko taldearen aurka jokatu duen partidurako. Julian Ruizen mutilek zaila izango dute partidua irabaztea, baina aurreko asteetan Bartzelona eta Ciudad Realen kontra baino zeozer errazago.

Bestalde, asteburuan jokatuako Ramon Aristi Memoria-laren XIII. edizioa Arraterentzat izan zen: Tolosaren aurka jokatuako norgehiagoketan, kadeteetan 27-11 irabazi zuten eibartarrek eta jubeniletan 42-24. Denboraldi berrirako abonoak eskuratzeko aukera indarrean jarraitzen du.



Urbat-Urkitronik-eko igeriketa eta waterpolo taldeen aurkezpena

INDARBERRITUTA AURKEZTU DA URETAN HAIN ONDO MOLDATZEN DEN kluba eta, igeriketako lorpenekin batera, batez ere Ander Romarate eta Markel Alberdiren kasuan, waterpolo sailean ahalegin berezia egin dute denboraldi berriari begira. Horrela, Davide Cerchi teknikari italiarra taldera ekartzeko bestelako planifikazioa egitera eraman ditu ardu-

radunak. Alebin, infantil, kadete, jubenil eta senior mailetan lan egiteaz gain, dagoeneko sei neska sartu dira Urbaten eta emkumeen taldea ateratzeko asmotan dihardute lanean. Urrian entrenamenduekin jarraituko dute talde guztiak eta parte hartu nahi duen edonork aukera du waterpolo@urbat.es helbidean, izena emateko epea zabalik jarraitzen baitu.



Waterpoloko nesken taldea osatzeko asmoarekin dihardute lanean. / MAIALEN BELAUSTEGI

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

| | |
|---|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 8 Pediatria |
| 2 Zirugia | 9 Psikiatria |
| 3 Dermatologia | 10 Radiologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 11 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 12 Barne Medikuntza |
| 6 Ortodontzia | 13 Koloproktologia |
| 7 Otorrinolaringologia | 14 Erizaintza |
| BERRIA: Foto-depilazio Unitatea | 15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |

unfema

burdindegia
ferreteria

BERRIRO BUELTAN GAITUZU

50 metro gorago,
Merkatu Plazaren
aurrean
Bidebarrieta, 40
943 20 11 75

XVI. ediziora ailegatu den San Andres Bertso Paper lehiaketak gaur irekiko ditu ateak lanak entregatzea nahi dutenentzat. ...eta kitto! Euskara Elkarteko Bertso Taldeak gogotsu dihardu lanean bertsozaletasuna gure herrian bultzatzeko helburuari utsita. Mikel Arrillaga da talde horretako kideetako bat.

MIKEL ARRILLAGA,
bertso taldekoa:

“Idaztea gogoko duenak bere lanak kaleratzeko aukera du”

- Herrian, eta batik bat gazteen artean, bertsozaletasuna bultzatu nahi duzue. Lortu duzue helburu hori?


Horrelako lehiaketek laguntzen dute horretan. Askorentzat bertsoak idazten dituen lehen aldia izango da, eta posible da hori bide luzearen hasiera baino ez izatea. Gainera, lehia beti izaten da lehia eta motibazio berezia izaten du. Bestetik, bertsolaritza lehia huts bezala ikusteko arriskua ere badakarte.

- Orohar, bertsozaletasunik bada Eibarren? Hor dugu Bertso Eskola ere.

Bai, horixe dagoela. Gu asetero batzen gara Arrate Kultur Elkartean dozena bat gazte eta ez hain gazte bertsoa lagun. Jendeak ahalegin handia egiten du eguenero gaueko 21.30ean bertso eskolara etortzeko, hori zaletasunik gabe ezinezkoa litzateke. Gainera, urtean zehar egiten diren saioetan entzule mordoa egoten da eta saio ugari antolatzen da.

- Zelan animatuko zenuke jendea parte hartzera?

Normalean bertso eskola-



koak animatu nahian ibiltzen naiz, baina idazteko alfer samarrak dira. Bat-batean aritzea nahiago izaten dute idaztea baino. Baina idaztea gogoko duenak aukera polita du bere lan horiek kaleratzeko.

- San Andres Bertso Paper lehiaketako irabazleek San Andres bertso jaialdian abesten dituzte euren lanak, eta ondoren bertso jaialdia izaten da. Zelakoa izango da aurtengoa?

Jaialdi polita izango da. Bertsolari gazteek kantatuko dute, azken urteetan bezala. Gaur egun, maila handiko bertsolari gazte asko dago eta kantatzeko grinaz egon naren, aukera gutxi izaten dute. Guk bide hori hartu genuen eta eutsi egingo diogu, baina oraindik goitxo da izenak arreratzeko.




‘Kontalaria’ ekimenean parte hartuko du Eibarrek

ESPazio PUBLIKOETAN EUSKARA SUSTATZERA BIDERATUTA DAGOEN ‘KONTALARIA’ EGITASMOA aurkeztu dute aste honetan Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak, Bego Muruaga Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskararen Sustapenerako zuzendariak eta Fran Lasuen ipuin-kontalari eta musikari eibartarrak. Egitasmoaren azken helburua, “Euskal Autonomia Erkidegoko 20 herritatik igaroz horietako herritarren parte-hartzearekin ipuin kolektiboa, elkarreraginezkoa eta ikus-entzunezkoa osatzea” da.

Proiektua gauzatu ahal izateko kamioi berezia ibiliko da he-

rririk herri asteburuero: “Barnealdean, kontu kontari jarduteko pantaila eta bideo kamera izango ditu, eta espazio horretan gauzatuko da ipuin kolektiboa. Kanpoko animazioaren bitartez, parte-hartzea bultzatuko da eta erredoreak funtzionamenduaren mekanika argituko du. Aurreko parte-hartzaileak kontaturiko istorioa erakutsiko zaio partaideari kontakizunarekin jarrai dezan”. Ikus-entzunezko teknikariak, aurrez markaturiko irizpideak erabiliz, ipuina gauzatu du ondoren. Haur nahiz gazte, heldu nahiz adineko, denek parte hartzeko aukera izango dutela azaldu zuten aurkezpenean.



Lipdub lehiaketako finalistak aukeratuta

ASTELEHENEAN ITXI ZEN EUSKARAZKO LIPDUB LEHIAKETAKO FINALISTAK INTERNET BIDEZ BOTOA EMANDA aukeratzeko epea eta, Youtuben jasotako boto kopuruaren arabera, honakoak dira finalistak: Udal Euskaltegia (The Uski's taldearen ‘Katuek bezala’ abestiarekin), Biraka Dantza Eskola (Gariren ‘Amets’ abestiarekin) eta Ahotsak.com (Zazpi Eskalaren ‘Bihar’ abestiarekin). Horien artean onena Coliseo antzokian aukeratu da, urriaren 19an, 19.00etan Iban Garatek aurkeztutako ekitaldian. Sari nagusiak gain, herriko ikasleek osatutako taldeentzat beste sari bat emango dute. Atal horretan La Salle ikastetxeko lan bi daude lehian: Betagarriren ‘Bidea gara’ abestiarekin batzuk eta Skalariak taldearen ‘Naturarekin bat’ abestiarekin besteak

Sorosle ikastaroa antolatu du DYAk

URRIAREN 13-AN SOROSLE ETA LEHEN SOROSPEN IKASTARO BERRIA HASIKO DA DYA GIPUZKOAK EIBARREN DUEN EGOITZAN (Pagaegi, 5 behean). Ikastaroak hiru aste iraungo du (azaroaren 5ean amaituko da) eta astelehenetik barixakura izango dira klaseak, 19.00etatik 21.00etara.

Ikastaroan parte hartzeko ez da aurretik ezagutza berezirik izan behar eta parte hartzen dutenek egunerokotasunean aurki ditzake-

gun arrisku egoerei nola erantzun ikasiko dute. Bestalde, ikastaro amaierako frogak gainditzen dituenak, DYA Gipuzkoak eskaintzen duen Sorosle Tituloa eskuratzeko aukera izango du. Horrez gain, EHUrako kreditu bi jasotzeko aukera ere badago.

Matrikulak, ikastarorako txostena barne, 90 euro balio du. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943464622 telefonora (plaza mugatuak dira).



Harixa Emoten literatura tailerra eguaztenean hasiko da

FERMIN ETXEGOIEN-EN "AUTOKARABANA" LIBURUAREKIN EHINGO DIO HARIXA EMOTEN PROGRAMAK ikasturteari eguaztenean. Antxon Narbaizaren gidaritzapean, bi-hiru hiletik behin liburu bat aukeratu eta horren inguruko tailerra egin ohi dute partaideek. ...eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela 7 urte jarri zuen martxan egitasmo hau irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin. Liburuak, eta baita saioak ere, euskeraz izaten dira eta edonork parte har dezake. Irakurtzeko gogoia izatea besterik ez da behar. Izena emateko deitu



...eta kitto!-ko 943200918 telefonora (Maider).

Liburuak irakurri eta gero, horren inguruko tailerra egiten du taldeak.
/ SILBIA HERNANDEZ



Enpanadaren jaija Urkizun

AS BURGAS GALIZIAKO ETXEAK ENPANADAREN II. JAIJA ANTOLATU DU BIHARKO: 11.00etan Urkizuko parkean txosna zabalduko dute, Ribeiro ardoa eta enpanada salgai ipintzeko. 13.00etan berriz, enpanada lehiaketari ekingo diote. Aurkezten direnen artean, hiru onenek saria eramango dute (150, 90 eta 60 euro, hurrenez hurren). Horrez gain, arratsalderako hainbat joko, tailer eta lehiaketa antolatu dituzte umeendako (16.30etatik 20.30etara).

**NAFARROA
OINEZ**

**Atarrabian
urriaren**

**IRTEERA
08.30etan
-EgoGain-
ITZULERA
19.00etan
9 euro**



17^{an}

AUTOBUS

TXARTELAK

2010

zerbitzua

...eta kitto!-n

munduz mundu

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

IGOITZA NAGUSIA
Bilbarrizta 20 - behean, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

**Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Daba**

Tanatorioa eta Errausketa labea
Egoiberran (Sigra poligonoan)
Partikular, multo eta dieguri enesi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urtumanoak eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartzer zerbitzu
Nazio eta Nazioarteko irabazleak

**Mugica
Ehorzketa**
Funerariaren taldea

**TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951**

laburrak

Sostoa jende bila

Udako oporrak amaituta, Sostoa Abesbatzak ikasturteko martxari helduko dio eta, abesbatzarekin bat egiteko prest dagoen jendea taldera erakartzeko asmoz kanpaina abiarazi du, abestea gustuko dutenei abesbatzarekin bat egiteko gonbidapena luzatuz. Sostoaaren entseguak astean birritan, martitzenetan eta eguenetan izaten dira Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan (Portalean), 21.30etatik 23.00etara.

Pagatxaren ikastaroa

Pagatxa emakume elkarteak antolatuta, "Coaching eta jabetza" ikastaroa hasiko da astelehenean. Edozein emakumek har dezake parte ikastaroan eta izen-ematea doan da (astelehenean bertan azalduta nahikoa da), Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaindutako ikastaroa delako. Urriaren 4tik aurrera eta Gabonak bitartean astelehenero izango dira klaseak, Portalean (ikastaro gelan).

Biztu

Biztu koordinakundeak nagusientzat antolatutako ikastaroak hastear daude (areto dantzak, gimnasia mentala, armonia eta erlazazioa, Eibar-ko euskera, eskulanak). Jubilatutako etxeetan zabalduko dute horien inguruko informazioa.

Bisita gidatua

Fernando Beorlegiren lanekin erakusketa martxan dago Portalean, erakusketa aretoan, eta urriaren 12ra arte ohiko ordutegian bisitatzeko aukera izango da (martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara). Hala ere, barixakuan (urriak 1) 19.00etatik aurrera Mikel Beorlegi artistaren semeak gidatutako bisita eskainiko du. Horrez gain, erakusketa martxan dagoen bitartean, Juan San Martin liburutegian artistari buruzko interesgunea dago ipinita.

Berbetan egitasmokoak ikasturteari ekiteko prest

EGUAZTENEAN AURKEZTU ZITUZTEN IKASTURTE HONETAN BERBETAN EGITASMOAN PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK, Klub Deportiboan. Udal Euskaltegiak, AEK Euskaltegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek euskaldun berriei euskeraz berba egiten erreztasuna lortzeko aukera eskaintzeko asmoz ekin zioten orain urte batzuk Berbetan programari eta euskaldun zahar eta berriekin osatutako taldeak finkatzen joan dira. Astero berba egiteko elkarteaz gain, beste jarduera batzuk ere garatzen dituzte partaideek, tartean hainbat ikastaro. Hain zuzen ere, gaur zabaldu da makrobiotikaren inguruan antolatu den



Berbetan-ekoek Deporren egin zuten aurkezpena eguaztenean. / SILBIA HERNANDEZ

ikastaroan izena emateko epea. Simone Begiristainek emango du, Portalean urriaren 19an, 21ean, 26an eta 28an. Informazio gehiagorako eta izen-emateko ...eta kitto! Euskara Elkartera jo daiteke (Urki-

zu, 11, 943-200918 telefonoa), urriaren 15era arte. Ikastaroa berez edozeinentzat dago zabalik eta matrikulak 10 euro balio du, baina berbalagun eta euskara elkarte-ko bazkideentzat doan izango da.

San Andres bertso paper lehiaketa martxan



AZAROAREN 5-ERA ARTE AURKEZTU DAITEZKE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO San Andres bertso paper lehiaketan parte hartzeko lanak, gai eta doinu librean. Hiru maila bereiziko dira: Eibar-ko ikasleentzat adinaren arabera (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Euskal Herri mailara zabaldukoak, 16 urte-rik gorakoentzat. Aurkeztu beharreko lanen neurria ere mailararen arabera aldatzen da: gazteenek bertso bana edo koplak bi entregatu beharko dituzte, DBHkoek bertso bi edo lau koplak gutxienez eta gainontzekoek lau puntu edota gehiagoko sei bertso gutxienez. Maila bakoitzeko sariak bi banatuko dituzte.

Musikari gazteak gaur Coliseoan

PEDRO PALACÍN EIBARTARRAK ZUZENTZEN DUEN ANDRÉS DE EGIGUREN ORKESTRAK KONTZERTUA eskainiko du gaur Coliseo antzokian, 20.30etan. 18 eta 25 urte bitarteko musikari gazteek osatutako orkestrak bakarlarik biren laguntza izango du oraingoan: kontzertuaren lehenengo zatian Andrea González Caballerok jardungo du, gitarrarekin eta bigarreanean, berriz, Alvaro Garrido pianojoleak. Biak ere ezagunak dira herriko musikazaleen artean eta, gazteak izan arren, biek ibilbide luzea daramate musika munduan. 17 urteko gitarrak Joaquín Rodrigoren "Fantasía para un gentleman" aukeratu du bere emanaldirako eta Garridok, berriz, Mozarten "Concierto para piano y orquesta N°20 en re menor K466". Sarrerak 10 euro balio du.




Alvaro Garrido pianojolea.

Argazkilaritza ikastaro berria


ARGAZKIGINTZA DIGITALAREN INGURUAN KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARIEK ANTOLATZEN DUTEN IKASTAROAK arrakasta handia izaten du urtero. Aurten, izena emateko epea amaituta jende artean zegoen interesa ikusita, orain martxan dagoenari jarraituko dion bigarren ikastaroa antolatzea erabaki dute: martitzen eta eguenetan izango dira klaseak, 19.00etatik 21.30etara, urriaren 19an hasita. José Valderrey izango da irakaslea honetan ere eta matrikula egiteko zein informazioa eskatzeko urriaren 4tik 8ra Pegorara joan behar da.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, NAIA, bixar bost urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat, aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, NEREA, atzo urtia bete zendualako. Miguel, Marian eta gurasuen partez.



Zorionak, IZARO, zortzi urterekin neska haundixa egiña zagoz-eta. Muxutuak famelixaren partez.



Zorionak, DANEL, domekan hiru urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MALEN, eguaztenian zazpi urte bete zenduaz-eta. Muxu bat aitta eta amaren partez.



Zorionak, MARKEL, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, HELENE, gure printzesa, domekan sei urte beteko dozulako. Muxu potolo bat aitta, ama eta, batez be, Mirenen partez.

JAIOTAKOAK

- Elene Amostegi Egaña. 2010-IX-18.
- Urko Azkarate Irizar. 2010-IX-19.
- Amets Vega López. 2010-IX-20.
- Odei Salaberria Del Río. 2010-IX-21.
- Elene Beobide Inziarte. 2010-IX-22.

HILDAKOAK

- Cayetano Kortajarena Azkonobieta. 89 urte. 2010-IX-23.
- Rosario Osa Larraza. 87 urte. 2010-IX-26.
- Jose Alberto Zangitu Angoitia. 67 urte. 2010-IX-27.
- Günther Server. 91 urte. 2010-IX-28.

zinea Coliseoan

1ean, 22.30etan; 2an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan; 3an, 17.00 eta 20.00etan; 4an, 20.30etan.

"Híncame el diente"

Zuzendaria: Jason Friedberg
Aktoreak: Matt Lanter, Jenn Proske, Emily Brobst, Krystal Mayo



Becca nerabea zalantzan dago mutil biren artean. Black Eyed Peas-en antza duten banpiroen familia batekin afalduko du eta, hortik bizirik irtenda, institutoko dantza gaua prestatu beharko du, aitaren kontrolpetik ihesi egiten saiatzen den bitartean...

"Conocerás al hombre..."

Zuzendaria: Woody Allen
Aktoreak: Anthony Hopkins, Josh Brolin, Naomi Watts, Antonio Banderas



Familia baten pertsonaien inguruko amodio kontuak, maitasun istorio horietako zailtasun kontuekin. Eromenetik arriskuraino bidera eramango dituzten arazo guztiekin, tartean sexua, amodioa, umorea eta traizioak protagonistak bilakatuz.

"Come, reza, ama"

Zuzendaria: Ryan Murphy
Aktoreak: Julia Roberts, Javier Bardem, James Franco, Billy Crudup



Emakume batek bere burua aurkitu nahiko du eta, amodioan hainbat aldiz kale egin ondoren, Italia, India, Bali eta Indonesia hartzen dituen bidaia hasiko du. Bizitza arrakastatsua erositasunetik ihesi, diru guztia arriskatu eta bizitza berria aurkituko du.

"Toy Story 3"

Zuzendaria: Lee Unkrick
Aktoreak: Tom Hanks, Tim Allen, Joan Cusack, Michael Keaton (ahotsak)



Andy heldua egin eta unibertsitatera joateko prestatuko da; horrek Buzz, Woody eta bandaren ezinegona sortuko du. Haurtzaindegi batean hartuko dute lurra eta bertako haur basatiek eskua botako diete euren "jostailu" berriei. Hortik arazoak...

horoskopoa

ARIES

Sufritzen ari zara. Ezin baduzu egin dizutena barkatu, ahaztu eta hobe duzu pertsona horrekin berriz ere zerotik hasiko bazina.

TAURUS

Nora zoaz udako arropekin? Praka motzak eta sandaliak gorde eta atera txamarrek. Ez zara konturatu barregarri zaudela?

GEMINI

Pozik egotea ondo dago, baina burua txoriz betetzen ari zaizu. Hankak lurlean ipini eta zentratzen hasi beharko zenuke.

CANCER

Lagun ona zara eta beti zaude laguntzeko prest. Orain zeuk behar duzu laguntza eta lagunak prest izango dituzu laguntzeko.

LEO

Ez duzu espero zenuena lortu, ezta? Daukazuna baloratzen hasi beharko zenuke eta zure eskakizun maila jaisten hasi.

VIRGO

Zenbat protesta eta purrustada! Nahikoa da. Horrela jarraituz gero, ez da inor egongo zuri entzuteko; nazkatuta daukazku lagunak.

LIBRA

Kirola egitea ondo dago, baina tamainan. Udan irabazitako kilo pare hori berehala kenduko duzu eta lasai ibili.

SCORPIUS

Asteburu bikaina pasatuko duzu, astroak zure alde dituzu-eta. Aspaldian ez bezala ligatuko duzu eta momentu magikoak biziko.

SAGITTARIUS

Buruan duzun bidaia hori egiteko unea heldu da. Lagunen batekin joatea gomendatzen dizut, bakardadera ohituta ez zaude-eta.

CAPRICORNIUS

Oztopo guztiei aurre egiteko gauza zara eta gaurko egoera gaindituko duzu. Edozein kasutan, ez ahaztu laguntza eskatzea ez dela pekatua.

AQUARIUS

Sekretuak ondo gordetzen dakizu eta lagun askoren konfidentea zara, baina kontatuko dizutena larregizkoa da isilean eukitzea.

PISCIS

Gabonetako oporretan pentsatzen? Oraintxe hasi dugu ikasturtea, barren! Dena dela, animo! Uste baino azkarrago helduko da.

Barixakua 1

AURKEZPENA

18.45.- Eibar Hierros Anetxe Rugby Taldearen aurkezpena. Unbeko rugby zelaian.

BISITA GIDATUA

19.00.- Fernando Beorlegiren erakusketarako bisita gidatua. Portalean.

HITZALDIA

19.30.- Errusiako Ulzibat teknikaren aurkezpena. Kiroldegiko zine aretoan (Soraluzen).

KONTZERTUA

20.30.- Andres Egiguren orkestra, Andrea González eta Alvaro Garrido. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

Zapatua 2

ENPANADA JAIA

11.00.- Ribeiro ardoa eta enpanadak saltzeko txosna zabalitzea.

13.00.- Gonbidatuei harrera. Enpanada lehiaketa.

14.00.- Sari-banaketa.

16.30.- Umeendako jolasak eta tailerrak.

21.00.- Jaiaren amaiera. Urkizun.

SAGARDO EGUNA

12.00/15.30 eta **19.00-21.00.-**

Sagardo Eguna, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Untzagan.

AGINAGAKO JAIAK

17.00.- Briska txapelketa.

17.30.- Umeendako jolasak (pelota partiduak, diskoteka eta txokolate-jana).

21.00.- Lagunarteko afaria.

23.00.- Suzko erroberak.

23.00.- Erromeria, Kupela taldearekin. Aginagan.

Domeka 3

KILOMETROAK

09.00.- Kilometroak-era joateko autobusaren irteera (buelta 19.00etan). Ego Gainetik.

AGINAGAKO JAIAK

11.00.- Meza nagusia, Goruntz abesbatzarekin.

11.45.- Zerutxu dantza taldearen emanaldia.

12.30.- Piskolabisa eta Gorritiren abereak.

14.30.- Paella-jana herrikoia.

17.00.- Idi probak, pisu librean uztarri bat eta kintopeko uztarri bi.

Aginagan.



Astelehena 4

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren Foroa. Portalean.

IKASTAROA

17.00.- Coaching eta jabetza. Lehenengo klasea eta izen-ematea. Portalean.

Martitzena 5

BILERA

19.00.- San Andres jaiak prestatzeko bilera. Portaleako ikastaro gelan.

HITZALDIA

19.30.- José María Setién-en hitzaldia: "Galdera etikoa bizi dugun une historikoan". Portalean.

Eguaztena 6

HARIXA EMOTEN

19.00.- Fermin Etxegoien-en "Autokarabana" liburuaren inguruko literatur tailerra. ...eta kitto! Euskara Elkarteak (Urkizu, 11 solairuartea).

ikastaroak

- Coaching eta jabetza.

Noiz: Urriaren 4tik aurrera, astelehenetan (17.00-19.00), Portalean (ikastaro gelan). Izen-ematea: Doan, bertan.

- Argazkigintza digitala: lehen urratsak.

Noiz: Urriko (19tik aurrera) eta azaroko martitzen eta eguenetan, (19.00-21.30) Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 4tik 8ra, Pegoran.

- "¿Qué deben saber madres y padres sobre las redes sociales?"

Noiz: Urriak 19, 21, 26 eta 28an (18.00-20.00) Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 15era arte, Pegoran.

- Makrobiotika ikastaroa.


Noiz: Urriak 19, 21, 26 eta 28an Portalean. Informazioa eta izen-ematea: Urriaren 15era arte, ...eta kitto!-n.

- Sorosle eta Sorospen ikastaroa.

Noiz: Urriaren 13tik aurrera, astelehenetik barixakura (19.00-21.00). DYA-ren egoitzan (Pagaegi, 5). Informazioa eta izen-ematea: 943464622 telefono zenbakian.

- Informatika ikastaroak langabetuentzat.

Informazioa eta izen-ematea: Juan San Martin Liburutegian.




erakusketak

– Urriaren 3ra arte

MARTA IRUSTA-ren bitxi erakusketa. Topalekuan.

– Urriaren 12ra arte

“FERNANDO BEORLEGI: Gogoaren pintzelkada garratzak”. Portalean.



lehiaketak

- Asier Errasti Eibarko XI. laburmetraia jaialdia.

Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran. Informazioa: www.planocorto.es, www.eibar.net

– Indalezio Ojanguren XXIII. argazki lehiaketa.

Lanak aurkeztea: Urriaren 8ra arte, Pegoran.

– “Sanandresak 2010 Eibarren” kartel lehiaketa.

Lanak aurkeztea: Urriaren 19ra arte, Pegoran.

– San Andres bertso paper lehiaketa.

Informazioa eta lanak aurkeztea: Azaroaren 5era arte, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

farmaziak

1, barixakua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

2, zapatua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

3, domeka

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

4, astelehena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

5, martitzena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

6, eguaztena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

7, eguena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

8, barixakua

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

diru-laguntzak

- Umeak Eskolara.

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

– Diru-laguntzak ikasleei.

Eskaerak aurkeztea eta informazioa: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 4 | 6 | | | 7 | | | |
| 1 | | 8 | 4 | | | | | |
| 5 | 2 | | | | 9 | | | |
| 4 | | | | 2 | | 5 | 6 | |
| 6 | | | | | | | | 3 |
| | 3 | 9 | | 5 | | | | 8 |
| | | | 8 | | | | 2 | 1 |
| | | | | | 5 | 7 | | 9 |
| | | | 3 | | | 8 | 4 | |

DENBORAPASAK

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 8 | 3 | 2 | 0 | 5 | 7 | 6 | 4 |
| 2 | 7 | 8 | 3 | 4 | 6 | 9 | 5 | 1 |
| 5 | 6 | 4 | 1 | 0 | 7 | 8 | 3 | 2 |
| 9 | 4 | 2 | 6 | 5 | 1 | 3 | 6 | 7 |
| 3 | 5 | 1 | 9 | 7 | 8 | 4 | 2 | 6 |
| 6 | 8 | 7 | 4 | 3 | 2 | 1 | 9 | 5 |
| 7 | 1 | 9 | 5 | 8 | 3 | 2 | 4 | 6 |
| 0 | 3 | 5 | 7 | 2 | 4 | 6 | 1 | 9 |
| 4 | 2 | 6 | 8 | 1 | 9 | 5 | 7 | 3 |

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Saratsuegin (5. solairua). 68 m². 2 logela, egongela, jantokia, sukalddea eta 2 komun. 2 garaje plaza eta 11 m²ko trasteleku. Pisua arekin Citroen C-3 opari (aukeran). 260.000 euro (negoziagarriak). Tel. 669-737751 eta 676-553108. Vanessa.
- Mutilak pisua konpartituko luke. Tel. 617-856585.
- Emakume batendako logela eskaintzen da. Pisua erabiltzeko eskubidearekin. Tel. 686-286110.
- Pisua salgai Barrena kalean. 3 logela, egongela, sukalddea, komuna eta despentsa. Kalefakzioa eta igogailua. Altua eta eguzkitsua. Berriztua eta jantzita. Tel. 678-287400.
- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukalddea eta komuna. Berriztua. Bizitzera sartzeko moduan. 24.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Saratsuegin. Logela bi. Ganbara eta garaje plaza bi. 3. pisua. Argitsua. Berria, sartzeko moduan. Tel. 647-720831.
- Buhardila dotorea alokagai (erosteko aukera). Prezio interesgarria. 5. pisua, igogailurik gabe. Tel. 626-144098.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 130 m². 3 logela, egongela, sukalddea, komun bi eta trasteroa. Igogailuarekin. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 659-037882.
- Gela eskaintzen da alokairuan. Tel. 610-607610.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 693-950032.
- Pisua alokagai Iparragirre kalean. Gela bi, egongela, sukalddea, komuna eta terraza handia. Altzariekin. Tel. 687-090955.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 688-811385.
- Gela alokagai Legarren (Eibarko erdi aldetik gertu). Kalefakzioa eta wi-fi. 275 euro, gastuak barne. Tel. 620-633434.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Furgoneta VW California T4 salgai. 146.000 km. Sukalde, hozkailu eta fregaderarekin. 4 ohe plaza. Egoera onean. 13.700 euro. Tel. 671-841563.
- Scooter CSR 125 motorra salgai. 3 urtekoa. 800 euro. Tel. 630-810099 eta 617-099029.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Barrena kalean. 18 metro eta erdi. Garajes García eraikinean. Tel. 686-333014.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukalddea eta komunarekin. Tel. 669-293427.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

3.2. Errentan

- Kontsulta alokatzen dut astero hiru egunetan. Tel. 639-748114. M^a Jesus.
- Garajea alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308. Pili.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 645-461600. Arrate.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 696-246962.
- Emakumea eskaintzen da astelehentik barixakura arte gauz lan egiteko; baita asteburuetan ere. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Tel. 680-223378.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 669-966611.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da ileapaindegirako laguntzaile. Tel. 650-280670.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-345891.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 608-886701.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 660-073781.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da etxea garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-752142.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 659-037882.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko: tabernetan, pegoretan, pisuetan... Tel. 610-607610.
- Mutila eskaintzen da nagusiak (gizonezkoak) zaintzeko gauz. Tel. 686-545884.
- Gizona eskaintzen da soldatzaile lanak egiteko. Tel. 693-950032.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez edo gauz. Tel. 630-365137.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 655-384877.
- Neska euskalduna eskaintzen da gozetan umeak zaindu eta eskolara eramateko. Tel. 646-369330.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-446228.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 645-719725.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-020180.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da pisuak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 660-593523. M^a Karmen.
- Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, banatzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Autoarekin. Tel. 671-368324.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 636-284019.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-255458 eta 617-151688.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako: umeak edo nagusiak zaindu... Tel. 669-688755.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 659-213249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko arratsalde. Tel. 696-509360.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-514535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitaletan ere. Tel. 669-311385.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauz ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 638-049409.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Klinika-laguntzaile tituluarekin. Tel. 646-384681.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-047847.

- Neska eskaintzen da interna moduan lan egiteko. Tel. 682-188248.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-423898.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 662-471270.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805. Isabel.

4.2. Langile bila

- UGAN Klubak aerobic monitorea behar du. Curriculumala bidali F. Calbetón, 21-era edo ugan.klub@euskalnet.net helbidera.
- Taxi lizentzia transferitzen da, jubilaria dela-eta. Tel. 693-937373.
- Neska euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-801304.
- Magisteritzan graduatutako unibertsitaria behar da akademia batean laguntza-klaseak emateko. Tel. 652-763264. centrobart@gmail.com
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. Deitu bulego orduetan. Tel. 943-744584.
- Pintorea behar da, 2. mailako ofiziala edo aprenidza. Tel. 660-522587.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Gitarra eta Harmonika klaseak ematen ditut. Tel. 647-289145.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Txori kaiola berria salgai. 61x38x52 zm. 45 euro. Tel. 686-325346.
- Ordenagailua salgai. Apple i Mac 24". 320 MB. Urte eta erdikoa. Oso egoera onean. 850 euro. Tel. 663-522433.

6.2. Eman

- Katakumea oparitzen da. Pertsonen jolastera ohituta. Tel. 665-034269.

6.4. Bestelakoak

- Eibarko emakume batek lagunak nahiko lituzke paseatzera, zineraz joateko etabar. Tel. 669-911573 eta 943-701642.

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75